

## TREBAKUNTZA 2021-04: ERDARAKADAK III

Udal idatzi askotan erdarakadak sartzen dira, hau da, gaztelaniatik hartutako hitzak, esamoldeak eta abar euskarara ekartzen dira, euskarazko hitz edo esamolde jatorrak baztertuta. Gaurko hau erdarakadei buruzko hirugarren fitxa da.

**OHARRA:** *asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.*

### OHIKO AKATSAK

1. \*Siesta ederra **bota** dugu arratsaldean.
2. \*Arazo hori 16 urteko gazteengan **ematen da**.
3. \***Hortik** dabil kultur teknikaria? Ez, asteon **Bilbotik** dabil.
4. \***Beste egunean** hitz egin zuen, kirolaren onurei buruzko jardunaldietan.
5. \*Auzokoekin daukagun arazoa **sakonki** aztertu behar da.
6. \***Posible da** hirigintzako arduraduna ere etortzea.
7. \*Atxondorako bidea **moztu** egin behar izan dute.

### ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. Gaztelaniazko “echar la siesta” esamoldearen kalkoa da, baina euskaraz “siesta egin” da jatorragoa.

**Ad. Siesta ederra egin dugu arratsaldean.**

2. Gaztelaniazko “se da” aditzaren kalkoa da. Euskaraz jatorragoa da “gertatzen da” edo antzeko aditzen bat erabilita.

**Ad. Arazo hori 16 urteko gazteen artean gertatzen da.**

3. Gaztelaniazko “por ahí” esamoldearen kalkoa da.

**Ad. Hor dago kultur teknikaria? Ez, asteon Bilbon dabil.**

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uma.eus](http://www.uma.eus)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
946 279 195

Aialde 2  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943 260 372

Azoka Plaza  
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa  
20734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943 816 699

4. Gaztelaniazko “el otro día” esamoldearen kalkoa da.

**Ad. Lehengo egunean hitz egin zuen, kirolaren onurei buruzko jardunaldietan.**

5. Kasu honetan, adberbioak ez dauka atzizkiaren beharrik, nahikoa da “sakon” esanda. Beste adberbio batzuekin ere gertatzen da gauza bera: *ozenki, gogorki...*

**Ad. Auzokoekin daukagun arazoa sakon aztertu behar da.**

6. Gaztelaniazko “es posible” esamoldea behin eta berriz erabiltzen dugu, euskarak baliokide jatorragoak izan arren:

**Ad. Baliteke/litekeena da hirigintzako arduraduna ere etortzea.**

7. Gaztelaniazko “cortar” hori zuzenean itzultzen dugu sarritan, baina euskarak badauka bere-berea den forma hori esateko.

**Ad. Atxondorako bidea itxi egin behar izan dute.**

\*\*\*\*\*  
\*\*\*\*\*  
\*\*\*\*\*

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin.

Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: [iratxe.udalak@uema.eus](mailto:iratxe.udalak@uema.eus) (Iratxe)

Hurrengora arte!

**Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea**

[www.uema.eus](http://www.uema.eus)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
946 279 195

Aialde 2  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943 260 372

Azoka Plaza  
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa  
20734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943 816 699